— Bai etxean bai industriak sorturiko hondakinen birrintzailleetatik datozen solidoak.

— Indarrean dagoen legerian toxiko eta arriskutsutzat hartzen diren produktu guztiak.

— Ukituriko eremuaren espazioan egokituriko erabilera desberdinetarako kalitate helburuak lortzeko trabak jarriko lituzketen produktu guztiak.

— Debeku hauek ez dute eraginik izango, atalean definituriko produktu batzuei begira zehaztutako hondakin-uren kontzentrazio mugetan.

3. Debekaturik daude:

— Industria isurketak, eta likido kontzentratu-botatzekoak, horrelako isurketetarako Planta berezi batean edo Planta zentralizatuan tratatu behar direnean.

— Erregai, errektibo edo lehengaien biltoki-deposituen garbiketarik etorritako isurketa etenak. Garbiketa horietatik sortutako isurkiak ez dira Estolda Sare Publikora hustuko.

— Temperatura muga bete arren, Estolda Sare Publikoan edo Arazteko Plantan egon daitekeen temperatura mailan trinkotasun oretsua edo solidoa har dezaketean isurki likidoak.

4. Ur garbiak:

— Debekatua dago diluzio-ura erabiltzea isurketetan, larrialdi edo arrisku egoeretan izan ezik.

— Ez da onartzen ur garbiak (hozteko zirkuitu irekietako urak, euri-urak, iturriak, errekek, eta abar) Estolda Sare Publikora hustutzea.

7.2. Mugak:

1. taulan (I. Eranskina) hondakin-urak Estolda Sare Publikora isurtzeko mugak zehazten dira. Zehazturiko muga horiek aldatu ahal izango dira kasu berezietan, kontaminatzaile batzuen balantze orokorrek, sorturiko diluzio graduek eta erakunde eskudunak zehazturiko kalitate helburuek eskatzen badute. Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak aztertuko ditu aldaketa horiek, eta beharreko erabakia hartuko du.

Erabiltzaileen batek 1. taulan azaltzen ez den eta 1. Artikuluan aurrikusitako helburuak betetzea oztopatuko lukeen gairen bat isuriko balu, Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak aztertuko du kasu bakoitzean isurketaren muga.

Taula hori automatikoki aldatutzat hartuko da Europako araudiak, Araudi Nazionalak edo Autonomiako araudiak hala eskatzen badu. Halaber, taula hori aldatuko da ingurugiro zirkusantziek edo teknologiaren aurrerapenak halakorik eskatzen badute.

8. Artikulua. Aurretratamendua.

Zehazturiko mugak gainditzen dituzten hondakin-urak sortzen dituzten erabiltzaileek beharreko aurretratamenduak bideratuko dituzte, isurketak Ordenantza honetan zehazturiko mugetara egokitu ahal izateko.

Aurretratamendu honetarako beharreko instalazioak Estolda Sare Pribatuaren barnean egongo dira, eta xehe deskribatuko dira Isurketarako Baimenaren eskaeran. Eskaera horrekin batean, dagokion proiektua eta haren eraginkortasunaren azterketak eta justifikazio kalkulak aurkeztuko dira.

— Sólidos procedentes de trituradores de residuos, tanto domésticos como industriales.

— Todos aquellos productos contemplados en la vigente legislación sobre productos tóxicos y peligrosos.

— Todos aquellos productos que pudieran evitar el cumplir los objetivos de calidad para los diferentes usos adoptados en el espacio litoral de la zona afectada.

— Estas prohibiciones lo serán sin perjuicio de lo establecido para algunos de los productos, en las concentraciones límite en el agua residual definidos en el apartado.

3. Los siguientes vertidos:

— Vertidos industriales, líquidos concentrados-desechables, cuyo tratamiento corresponda a una Planta específica para estos vertidos o en Planta centralizada.

— Vertidos discontinuos procedentes de la limpieza de tanques de almacenamiento de combustibles, reactivos o materias primas. Estas limpiezas se realizarán de forma que la evacuación no sea a la Red de Alcantarillado Público.

— Vertidos líquidos que, cumpliendo con la limitación de temperatura, pudieran adquirir consistencia pastosa o sólida en el rango de temperatura que se pudiera dar en la Red de Alcantarillado Público o Planta Depuradora.

4. Aguas limpias:

— Queda prohibida la utilización de agua de dilución en los vertidos, salvo en situación de emergencia o peligro.

— No está permitido el desagüe de aguas limpias (de refrigeración en circuito abierto, pluviales, manantiales, regatas, etc.) a la Red de Alcantarillado Público.

7.2. Limitaciones:

En la tabla 1 (Anexo I) se establecen las limitaciones para el vertido de aguas residuales a la Red de Alcantarillado Público. Los límites fijados podrán alterarse en supuestos excepcionales, cuando los balances generales de determinados contaminantes, grados de dilución resultantes y objetivos de calidad fijados por el organismo competente así lo justifiquen. Estas alteraciones serán estudiadas por la Sociedad Gestora de la Mancomunidad, quien adoptará la resolución procedente.

Si algún usuario vertiera alguna sustancia no incluida en la tabla 1 y que afectara al cumplimiento de los fines previstos en el artículo 1, la Sociedad Gestora de la Mancomunidad estudiaría en cada caso la limitación del vertido.

Esta tabla se entenderá automáticamente modificada en tanto en cuanto lo exija su adecuación a la normativa Europea, Nacional o Autonómica. Así mismo será modificada cuando lo aconsejen las circunstancias medioambientales o los avances de la tecnología.

Artículo 8. Pretratamiento.

Los usuarios cuyas aguas residuales sobrepasen los límites establecidos, deberán incorporar los pretratamientos correspondientes a fin de adecuar el vertido a los límites establecidos en el presente Ordenanza.

Las instalaciones necesarias para este pretratamiento formarán parte de la Red de Alcantarillado Pública, y se describirán detalladamente en la solicitud de Autorización de Vertido, a la que acompañará el proyecto correspondiente y los estudio y cálculos justificativos de su eficacia.

Isurketaren Baimena tratamenduaren eraginkortasunaren araberakoa izango da, eta isurketak ez baditu aurrikusitako emaitzak betetzen, indarrik gabe geratuko da Baimen hori, eta horrenbestez, debekatuta egongo da Estolda Sare Publikora isurtzea.

Aurretratamendu bat egin ondoren ere, erabiltzaileak ez badu lortzen Ordenantza honetan zehazturiko mugen barnean sartzea isurketa, beharreko neurriak hartu beharko ditu hondakin horiek bildu eta isurketa berezien Planta Zentralizatu batera edo segurtasun depositu batera hustutzeko, azken xedea indarrean dagoen araudiaren araberakoa izan dadin.

9. Artikulua. Larrialdi egoerak.

Beren iharduerarengatik gai debekatuak edo baimenduta ez dauden kontzentrazioetan isur ditzaketen erabiltzaileek neurri egokiak hartu beharko dituzte Ordenantza honetan zehaztutakoa betetzen ez duten ustekabeko isurketak gerta ez daitezen.

Gai debekatuak eta baimenduta ez dauden kontzentrazioetan isurketan gertatzen diren larrialdi egoeretan, erabiltzaileak berehala jakinaraziko dio Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileari gerta litezkeen kalteak ahalik eta txikiak izan daitezen beharreko neurriak hartu ahal izateko.

Erabiltzaileak ere eskumenean dituen neurri guztiak erabiltzeko dituzten isurketaren ondorioak ahalik eta gehien murrizteko.

Erabiltzaileak txosten bat igorriko dio Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileari, eta honako hau zehaztuko du txosten horretan:

- Isurketaren ezaugarri fisiko-kimikoak. Tipologia.
- Isurketaren bolumena.
- Deskargaren lekua, unea eta iraupena.
- Jarioaren arrazoiak.
- Etorrizunean horrelakorik gerta ez dadin hartutako neurriak eta zuzenketak.

Artikulu honek aipagai dituen istripuek eragiten dituzten jardueren kostua isurketa egin duen erabiltzailearen kontura izango da, eta kostu hori ordaindu egingo du, izan ditzekeen beste erantzukizun batzuez gainera.

Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak egingo du kalteen balorazioa.

10. Artikulua. Ikuskatzea eta behatzea.

Erabiltzaileari erregistro kutxetan instalatzeko eskatu zaizkion kontrolerako ekipak funtzionamendu baldintza bikainetan egongo dira eta kalibraketa egokia izango dute.

Jardueren titularrek beren isurketen autokontrol bat egingo dute eta, isurtzen duten karga kontaminatzailea, emariak eta haien erregimena jasoko dituen txosten bat igorriko diote aldian-aldian Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileari. Txostenaren aldizkakotasuna Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak zehaztuko du Isurketaren Baimenean.

Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak aldian-aldian ikuskatze eta behatze lan bat egingo du Ordenantza honetan edo dagokion Isurketarako Baimenean zehazturiko arauak betetzen direla ziurtatzeko.

Ikuskatze eta behatze funtzioak egiten dituzten langileek, izaera hori behar bezala egiaztatu ondoren, sarrera irekia izango dute erabiltzailearen instalazioetara egoki iruditzen zaientzuek eta aldeztu aurretik jakinarazi gabe. Honako egiaztatze hauek egingo dira:

La Autorización de Vertido quedará condicionado a la eficacia del tratamiento, de tal forma que si el vertido no cumple los resultados previstos, quedará sin efecto dicho Autorización y prohibido el vertido a la Red de Alcantarillado Pública.

Si incluso tras un pretratamiento, el usuario no consiguiera que el vertido se mantenga dentro de los límites fijados en esta Ordenanza, éste deberá tomar las medidas necesarias para almacenar dichos residuos y evacuarlos a una Planta Centralizada de vertidos especiales o depósito de seguridad que garanticen su destino final de acuerdo con la normativa vigente.

Artículo 9. Situaciones de emergencia.

Los usuarios que por su actividad pudieran verter sustancias prohibidas o en concentraciones no autorizadas, deberán adoptar las medidas adecuadas para evitar las descargas accidentales de vertido que infrinjan lo establecido en la presente Ordenanza.

En situaciones de emergencia en las que se produzcan vertidos de sustancias prohibidas o en concentraciones no autorizadas, el usuario lo comunicará inmediatamente a la Sociedad Gestora de la Mancomunidad, con el fin de adoptar las medidas necesarias para reducir los posibles daños que pudieran producirse.

El usuario a su vez utilizará todos los medios a su alcance para reducir al máximo los efectos del vertido.

El usuario deberá remitir a la Sociedad Gestora de la Mancomunidad un informe en el que se especifique:

- Características físico-químicas del vertido. Tipología.
- Volumen del vertido.
- Lugar, momento y duración de la descarga.
- Causa del derrame.
- Medidas adoptadas y correcciones para evitar su reproducción en el futuro.

El costo de las operaciones a las que den lugar los accidentes a los que se refiere este artículo serán a cargo del usuario causante del vertido, quien deberá abonarlo, con independencia de otras responsabilidades en las que pudiera haber incurrido.

La valoración de los daños será efectuada por la Sociedad Gestora de la Mancomunidad.

Artículo 10. Inspección y vigilancia.

Los equipos de control que se hayan solicitado al usuario que instale en la arqueta de registro deberán encontrarse en perfectas condiciones de funcionamiento y con un calibrado adecuado.

Los titulares de las actividades deberán realizar un autocontrol de sus vertidos, debiendo remitir periódicamente a la Sociedad Gestora de la Mancomunidad un informe en el que se indique la carga contaminante que vierten y los caudales y régimen de los mismos. La periodicidad del informe será establecida por la Sociedad Gestora de la Mancomunidad en la Autorización de Vertido.

Por su parte, la Sociedad Gestora de la Mancomunidad efectuará periódicamente inspección y vigilancia para comprobar el cumplimiento de las normas establecidas en este Ordenanza o en la Autorización de Vertido correspondiente.

El personal que ejerza las funciones de inspección y vigilancia, debidamente acreditado, tendrá libre acceso a las instalaciones del usuario en el momento que estime oportuno y sin necesidad de aviso previo. Se efectuarán las comprobaciones siguientes:

— Laginak jasoko dira dagozkien azterketak egiteko.

— Bai banakako isurketen, bai isurketa globalaren emariak neurtuko dira.

— Euri-uren sarea kontrolatuko da.

— Isurketaren Baimenean zehaztutako kontrol elementuen egoera eta funtzionamendua ikuskatuko da (emariaren neurgailuak, pH-ren neurgailuak, eta abar.), eta neurtutako datuak erregistratuko dira.

— Erabiltzailearen instalazioetan ezarritako arazteko ekipoen funtzionamendua zuzena den kontrolatuko da.

— Prozesuetan sartzen den uraren bolumena neurtuko da, eta uraren balantzearen egiaztapena egingo da erabiltzailearekin: Sare Publikoko urak, kaptazioak, eta abar.

— Aurreko bisitaldietan zehazturiko aldaketak egin diren egiaztatuko da.

— Hondakin toxikoak eta arriskutsuak behar bezala gestionatzen ote diren ziurtatuko da.

— Ordenantza honek jasotzen dituen gainerako obligazioak betetzen ote diren egiaztatuko da.

Isurketen ikuskatzea edo kontrola egiten ez bada uzten edo datuak eta laginak ez badira ematen zigor bat ezarriko da desobedienciaz eta gainera Isurketarako Baimena kendu ahal izango da.

Ikuskatze bakoitzaren ondoren, Akta bat egingo da, eta erabiltzailearen ordezkariak eta ikuskatzaileak sinatuko dute akta hori.

11. Artikulua. Lagin hartzea eta azterketa.

Elkarte Kudeatzaileko langileek egingo dute lagin hartzea erabiltzailearen edo bere ordezkariaren aurrean, berak horri uko egiten dioen kasuetan izan ezik.

Bapateko laginetan, lagin integratu edo konposatutan egingo da azterketa, lagin horiek emariaren araberakoak izango dira eta edozein unetan eta edozein isurketa indibidual edo orokorrean jasoko dira. Nolanahi ere, aspektu guztiak kontuan hartuko dira ahalik eta isurketaren erakusgarri hoberena izan dadin lagina.

Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak zehazturiko programa baten arabera jasoko dira laginak, eta kontuan hartuko dira laginen jasotze eta kontserbazioari buruz «Standard Methods for the Examination of Water and Wastewater» araudian zehazturiko arauak. Lagina bitan banatuko da eta industrialari utziko zaio zati bat.

Azterketen emaitzekin ezadostasunak egongo balira, Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak zehaztuko ditu egin beharreko lagin hartzeen modua eta mota eta zehaztu beharreko parametroak. Egiaztatze azterketa hauek Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzailearen laborategian egingo dira.

Hala eta guztiz ere ezadostasunak egongo balira hirugarren azterketa bat egingo litzateke Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak zehaztuko duen Laborategi ofizial espezializatu batean, Ordenantza honetan zehaztutako azterketa-teknikak erabiliz beti ere.

Egiaztatzeko lagin hartzeen kostua erabiltzailearen kontura izango da, lehenengo lortutakoari dagokionean 1,6 %20an ez bada aldatzen emaitza.

— Toma de muestras para la realización de los análisis correspondientes.

— Medida de caudales, tanto de los vertidos individuales como del vertido global.

— Control de la red de pluviales.

— Inspección del estado y funcionamiento de los elementos de control estipulados en el Autorización de Vertido (caudalímetros, medidores de pH, etc.) y registro de los datos medidos.

— Control del correcto funcionamiento de los equipos de depuración implantados en las instalaciones del usuario.

— Medición de los volúmenes de agua que entran en los procesos, realizándose con el usuario una comprobación del balance del agua: Aguas de la Red Pública, captaciones, etc.

— Verificar la realización de las modificaciones señaladas en anteriores visitas.

— Certificación de la adecuada gestión de residuos tóxicos y peligrosos.

— Comprobación de las restantes obligaciones que establece esta Ordenanza.

El no permitir la inspección o control de los vertidos o no facilitar datos o muestras conllevará una sanción por desobediencia y además podrá suponer la rescisión de la Autorización de Vertido.

Después de cada inspección se levantará un Acta que firmará el representante del usuario y el inspector.

Artículo 11. Muestreo y análisis.

El muestreo lo realizará personal de la Sociedad Gestora en presencia del usuario o su representante, salvo que el mismo renuncie a ello.

Los análisis se realizarán sobre muestras instantáneas, integradas o compuestas, proporcionales al caudal recogidas en cualquier intervalo de tiempo y en cualquier vertido individual o general. En cualquier caso, se tendrán en cuenta todos los aspectos para que la muestra sea lo más representativa del vertido.

La toma de muestras se realizará según un programa establecido por la Sociedad Gestora de la Mancomunidad y teniendo en cuenta las normas sobre toma y conservación de muestras fijadas en el «Standard Methods for the Examination of Water and Wastewater». La muestra se dividirá en dos, dejando una parte para el industrial.

Si hubiera disconformidad con los resultados analíticos, la Sociedad Gestora de la Mancomunidad definirá la forma y tipo de muestreos a realizar y los parámetros a determinar. Estos análisis de contraste se efectuarán en el laboratorio de la Sociedad Gestora de la Mancomunidad.

Si aún y todo persistiera la discrepancia se recurriría a un tercer análisis, que se realizará en un Laboratorio oficial especializado a determinar por la Sociedad Gestora de la Mancomunidad utilizando las técnicas analíticas especificadas en esta Ordenanza.

El costo del/los muestreos de comprobación será a cargo del usuario, si el resultado no difiere del obtenido primeramente en 20%.

Isurketen ezaugarriak zehazteko erabiliko diren azterketa-metodoak «Standard Methods for the Examination of Water and Wastewater» araudian jasotzen direnak izango dira, American Public Health Association (APHA), Water Works Association (AWWA) eta Water Pollution Control Federation (WPCF) elkarteek argitaratu dituzte azterketa-metodo horiek, toxikotsuna izan ezik, lumineszentzia bioentseiu baten bidez zehaztuko baita hori.

Kasu batzuetan eta isurketa batzuen ezaugarri bereziengatik, Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak zehazturiko beste azterketa-metodo batzuk erabili ahal izango dira, aldez aurretik erabiltzaileari jakinarazi ondoren.

Suertatzen diren aldaketetara eta indarrean hasten diren metodo berrietara egokitzen joango dira metodo horiek.

12. Artikulua. Isurketaren onarpena.

Gai toxikoak, inhibitzaileak, eta kolektoreak honda litzaketan gaiak sortaraz litzaketen erabiltzaileek edo, Estolda Sare Publikoan zuzenean edo zeharka isurtzen duten 150 biztanle arrunt bakoitza gehiagori legokiekeen isurtze maila gainditzen duten erabiltzaileek ezinbestean eskatu beharko dute Isurketarako Baimena, isurtze horiek Ordenantza honen arabera diren aztertu ahal izateko. Horretarako, helburu horrekin itxuratutako eskari-ordua aurkeztu beharko dute Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzailearen aurrean, isurketari buruzko datu guztiak zehaztuta, eta bereziki haien emariak eta erregimenak, gaien kontzentrazioak eta Ordenantza honek mugaturiko ezaugarriak. Hondakin-urak aurrez tratatu behar badira, instalazioen proiektu teknikoak ere aurkeztu beharko da eskari-orduekin batera. Honez gainera, Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak isurkien gaineko azterketaren ziurtagiria, laborategi homologatu batek egina, eskatu ahal izango dio erabiltzaileari, isurki horien ezaugarriak egiazta ditzan, eta eskatu ahal izango dio era berean hondakin horien kudeatzaile bat onartzeko, Hondakin Toxikoak eta Arriskutsuak sortarazten dituzten jardueren arabera hondakinak kudeatzearen.

Eskaera hartu eta bere zerbitzu teknikoek dagokion txostena prestatu ondoren erabakiko du Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak onartu ala ez. Hona hemen zer egin dezakeen erabaki batek:

— Besterik gabe onartu.

— Onartu, baina udal lizentzian zehaztuko diren baldintza batzuen arabera.

— Ez onartu. Uko honen arrazoiak adieraziko dira beti eta okerrak zuzendu ondoan onartu ahal izango da.

Harturiko erabakiaren berri emango zaio dagokion Udalari eta haren ziurtagiriarekin batera emango da ezinbestean Udal Lizentzia.

Baimena eman eta Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak instalazioak eta isurketak haren arabera direla egiaztatzen ondoren, erabiltzaileari eta dagokion Udalari emango zaie onarpenaren berri, lizentziak helburu duen jarduerara abiarazteko lizentziaren tramitazioari ekin ahal izateko.

13. Artikulua. Erabiltzailearen betebeharrak.

Honako betebeharrak hauek dituzte erabiltzaileek:

— Emaniko Baimenaren arabera egingo ditu isurketak.

— Titularitate-aldaketaren berri emango dio Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileari.

Los métodos analíticos a emplear para determinar las características de los vertidos serán los que figuran en el «Standard Methods for the Examination of Water and Wastewater», publicados por la American Public Health Association (APHA), la American Water Works Association (AWWA) y la Water Pollution Control Federation (WPCF), excepto la toxicidad, que se determinará mediante un bioensayo de luminescencia.

En algunos casos y debido a la naturaleza especial de algunos vertidos, podrán utilizarse otros métodos analíticos indicados por la Sociedad Gestora de la Mancomunidad, de los que se informará previamente al usuario.

Estos métodos se irán adaptando a los cambios y a los nuevos métodos que se pongan en vigor.

Artículo 12. Autorización de vertido.

Los usuarios susceptibles de aportar sustancias tóxicas, inhibidoras, con vertidos agresivos para los colectores o con una carga superior a 150 habitantes equivalentes que viertan directa o indirectamente a la Red de Alcantarillado Pública, deberán requerir Autorización de Vertido a fin de estudiar si se ajustan a la presente Ordenanza. Para ello deberán enviar a la Sociedad Gestora de la Mancomunidad una solicitud según modelo fijado al efecto, donde se indicarán todos los datos relativos a sus vertidos, con especial indicación de los caudales y regímenes de éstos, concentraciones de sustancias y características para las que se establecen limitaciones en esta Ordenanza. Si fuera necesario un pretratamiento de las aguas residuales, se acompañará un proyecto técnico de sus instalaciones. Así mismo, la Sociedad Gestora de la Mancomunidad podrá requerir a del usuario certificado de análisis del vertido por un laboratorio homologado que certifique las características del vertido, así como la aceptación de un gestor de residuos para gestionar los residuos generados por actividades productoras de Residuos Tóxicos y Peligrosos.

Una vez recibida la solicitud, y elaborado el correspondiente informe por sus servicios técnicos, la Sociedad Gestora de la Mancomunidad se pronunciará por la Autorización, pudiendo:

— Otorgarlo lisa y llanamente.

— Otorgarlo con condiciones específicas que se incluirán en la licencia municipal.

— Denegarse, indicando las razones que motiven esta denegación y cuya corrección permitirá su otorgamiento.

La decisión adoptada se comunicará al Ayuntamiento afectado, quien lo incluirá en la Licencia Municipal, como condición de la misma.

Otorgado el Autorización y comprobado por la Sociedad Gestora de la Mancomunidad de que las instalaciones y el vertido se ajustan al mismo, lo comunicará al interesado y al Ayuntamiento afectado, a los efectos de la tramitación de la correspondiente licencia de apertura o puesta en marcha de la actividad objeto de la licencia.

Artículo 13. Obligaciones del usuario.

Los usuarios están obligados a:

— Efectuar los vertidos en los términos de la Autorización concedida.

— Notificar a la Sociedad Gestora de la Mancomunidad el cambio de titularidad del mismo.

— Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzailcari emango dio bere jardueraren araberako isurketetan eginiko aldaketen berri eta beste Isurketarako Baimen bat eskatuko dio baldin eta alda-keta horien arabera isurketen bolumena edo haien gai kontami-natzaileen proportzioa %10ean emendatu badira.

14. Artikulua. Isurketarako baimenaren iraungipena eta ondorio galtzea.

Isurketarako Baimena eman ondoren, honako kasu hauetan geratuko da bertan behera:

1. Isurketa eten orduko, urtebete baino gehiago eman badu.
2. Hondakin-urak sortarazten dituen jarduerarako udal lizentzia iraungi, baliorik gabe utzi edo ezeztatzen denean.

Baliorik gabe geratuko da Isurketarako Baimena baldin:

1. Erabiltzaileak Ordenantza honen edo Baimenean zehaz-turiko xedapenen araberako debekuak eta mugak hausten dituzten hondakin-uren isurketak egiten baditu, eta egin zaizkion ohar guztiengatik ere horretan segitzen badu.
2. Erabiltzaileak Isurketarako Baimenean edo Ordenantza honetan zehazturiko beste baldintza eta betebeharrak batzuk bete-tzen ez baditu, huts horien larriak edo errepikatzeak hala eskatzen badu.

Isurketarako Baimenaren iraungipenak edo ondorio galtzeak Estolda Sare Publikoan zuzeneko nahiz zeharkako isurketak egitea debekatzea dakar eta hondakina-urak sortarazten dituen jardura bertan behera geratuko da horrenbestez. Mankomuni-tatearen Elkarte Kudeatzailcaren beharrek aldarazten ahal izango ditu, erabiltzailearen kontura, isurketa horiek galeratzeko.

15. Artikulua. Arau-hausteak.

Arau-hausteak izango dira:

- a) Debekaturiko isurketak egitea.
- b) Isurketak Ordenantza honen 7.2 atalean edo, bat ez badatoz, Isurketarako Baimenean zehazturiko mugak hautsiz egitea.
- c) Ikuskatze, kontrol eta behatze lanak oztopatzea.
- d) Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzailcaren isurketari buruz eskaturiko informazioa ez ematea edo ez ematen ahale-gintzea.
- e) Isurketarako Baimenean zehazturiko baldintzak ez betetzea.
- f) Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzailcari egoera arriskutsu edo larrien berri ez ematea.
- g) Titularitate-aldaketen berri ez ematea.
- h) Isurketan aldaketa koantitatiboak edo koantitatiboak eragingo dituzten jardura-aldaketen berri ez ematea.
- i) Oro har, Ordenantza honek zehazturikoa ez betetzea.

Honako mota hauekoak izango dira arau-hausteak:

1. Arinak:

— b), e) eta g) ataleko arau-hausteak, errepikatzen ez badira.

— i) ataleko arau-hausteak, azpiegiturari edo hirugarrenei 500.000 pezetatik gorako kalteak eragin ez zaizkienean.

— Notifikar a la Sociedad Gestora de la Mancomunidad, solicitando nueva Autorización de Vertido, cualquier alteración en su actividad que implique modificaciones superiores al 10% en el volumen de vertido o en cualquiera de los elementos conta-minantes.

Artículo 14. Caducidad y pérdida de efectos de la autori-zación de vertido.

Otorgada la Autorización de Vertido, se declarará su cadu-cidad en los casos siguientes:

1. Cuando cese el vertido por tiempo superior a un año.
2. Cuando caduque, se anule o revoque la licencia muni-cipal para el ejercicio de la actividad que genera las aguas resi-duales.

Se dejará sin efecto la Autorización de Vertido si:

1. El usuario efectúa vertidos de aguas residuales cuyas características incumplan las prohibiciones y las limitaciones de esta Ordenanza o aquellas específicas fijadas en la Autorización, persistiendo en ello pese a los requerimientos pertinentes.
2. El usuario incumple otras condiciones u obligaciones establecidas en la Autorización de Vertido o en esta Ordenanza, cuya gravedad o reiteración así lo justifique.

La caducidad o pérdida de efecto de la Autorización de Vertido implica la prohibición de realizar vertidos, directos o indirectos a la Red de Alcantarillado Pública y dará lugar a la clausura o cierre de la actividad que genera las aguas residuales, facultando a la Sociedad Gestora de la Mancomunidad para realizar a cargo del usuario las obras necesarias para impedir tales vertidos.

Artículo 15. Infracciones.

Se considerarán infracciones:

- a) Efectuar vertidos prohibidos.
- b) Realizar vertidos incumpliendo los límites establecidos en el apartado 7.2 de esta Ordenanza o los de la Autorización de Vertido en caso de que difieran.
- c) Dificultar las funciones de inspección, control y vigi-lancia.
- d) Negarse o resistirse a suministrar la información reque-rida por la Sociedad Gestora de la Mancomunidad referente al vertido.
- e) Incumplir las condiciones establecidas en la Autoriza-ción de Vertido.
- f) No comunicar a la Sociedad Gestora de la Mancomu-nidad cualquier situación de peligro o emergencia.
- g) No notificar los cambios de titularidad.
- h) No comunicar cualquier alteración en la actividad que implique modificaciones cualitativas o cuantitativas en el vertido.
- i) En general, cualquier vulneración de lo establecido en esta Ordenanza.

Las infracciones se calificarán en:

1. Leves:

— Las infracciones de los apartados b), e) y g) cuando no existiese reincidencia.

— Las infracciones del apartado i) cuando no se hubieran producido daños en la infraestructura y/o a terceros superiores a 500.000 pesetas.

JRE

2. Larriak:

— c), d), f) eta h) ataletako arau-haustek.

— b), e) eta g) ataletako arau-haustek, errepikatu badira.

— i) ataleko arau-haustek, azpiegiturari edo hirugarrenei 500.001 eta 5.000.000 pezeta bitarteko kalteak eragin zaizkien.

3. Oso larriak:

— a) ataletako arau-haustea.

— c), d), f) eta h) ataletako arau-haustek, errepikatu badira.

— i) ataleko arau-haustek, azpiegiturari edo hirugarrenei 5.000.001 pezetatik gorako kalteak eragin zaizkien.

Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak kontsumoko prezioen indiziaren arabera eguneratuko du aipaturiko kalteen munta.

16. Artikulua. Zigorrak.

Honako zigor hauek ekarriko dituzte arau-haustek:

1. Isuna.

2. Isurketarako Baimena aldi batez bertan behera uztea.

3. Isurketarako Baimena betikoz bertan behera uztea, erabat edo neurri batean.

Honako hau izango da isunen munta:

— Arau-hauste arinak, 100.000 pezeta bitarte.

— Arau-hauste larriak, 100.001 eta 500.000 pezeta bitartean. Isurketarako Baimena aldi batez bertan behera geratu ahal izango da gainera, eta neurri honek bere horretan iraungo du zigorra ekarri duen hutsa zuzendu ez den bitartean.

— Arau-hauste oso larriak, 500.001 eta 5.000.000 pezeta bitartean. Isurketarako Baimena betikoz bertan behera geratu ahal izango da gainera.

Isurketarako Baimena aldi batez edo betikoz bertan behera utzaraziko duten zigorraren arabera, beharreko lanak egin beharko dira jarduera etete hori gauzatzeko. Erabiltzaileak obra horiek zehazturiko epean egiten ez baditu, Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak berak bideratuko ditu erabiltzailearen kontura.

Ordenantza honetan ezarritakoari eginiko arau-haustek, eta aldi bereau ingurugiroarekiko babesarako araudia edo beste edozein araudi sektorialaren haustura denean, ahalmena duen organoak zigorretako du, araudi bereau ezarritakoaren arabera.

17. Artikulua. «Preskripzioak».

Ordenantza honetan adierazitako arau-haustek ondoko epe hauetan izango dute preskripzioa:

— Oso larriak diren arau-haustek 3 urtetara.

— Larriak diren arau-haustek 2 urtetara.

— Arinak diren arau-haustek 1 batetara.

18. Artikulua. Zigor-espedientearen hasia, bideratzea eta ebaztea.

Mankomunitatearen Lehendakariak du eginiko arau-hausteen zigor-espedientea hasi, bideratu eta ebazteko ahalmena.

2. Graves:

— Las infracciones de los apartados c), d), f) y h).

— Las infracciones de los apartados b), e) y g) cuando existiese reincidencia.

— Las infracciones del apartado i) cuando se produjeran daños en la infraestructura y/o a terceros entre 500.001 y 5.000.000 pesetas.

3. Muy graves:

— La infracción del apartado a).

— Las infracciones de los apartados c), d), f) y h) cuando existiese reincidencia.

— Las infracciones del apartado i) cuando se produjeran daños en la infraestructura y/o a terceros superiores a 5.000.001 pesetas.

La Sociedad Gestora de la Mancomunidad actualizará la cuantía de los daños indicados conforme al índice de precios al consumo.

Artículo 16. Sanciones.

Las infracciones darán lugar a las siguientes sanciones:

1. Multa.

2. Suspensión temporal de la Autorización de Vertido.

3. Suspensión definitiva, total o parcial de la Autorización de Vertido.

La cuantía de las multas será:

— Infracciones leves hasta 100.000 ptas.

— Infracciones graves, entre 100.001 y 500.000 ptas. Además pueden conllevar la suspensión temporal de la Autorización de Vertido, manteniéndose esta medida hasta que desaparezca la causa determinante de la sanción.

— Infracciones muy graves, entre 500.001 y 5.000.000 ptas. Además pueden conllevar la suspensión definitiva de la Autorización de Vertido.

Las sanciones que impliquen suspensión temporal o definitiva del Autorización de Vertido implicarán las obras necesarias para hacerla efectiva. Cuando el usuario no ejecute estas obras en el plazo otorgado, las mismas serán realizadas con cargo al usuario por la Sociedad Gestora de la Mancomunidad.

Las infracciones de lo dispuesto en la presente Ordenanza que vulneren asimismo lo dispuesto en la normativa específica sobre protección del Medio Ambiente o en cualquier otra normativa sectorial, se sancionarán por el órgano competente de conformidad con lo establecido en la misma.

Artículo 17. Prescripciones.

Las infracciones de lo dispuesto en esta Ordenanza prescribirán en los siguientes plazos.

— Las infracciones muy graves a los 3 años.

— Las infracciones graves a los 2 años.

— Las infracciones leves al año.

Artículo 18. Incoación, instrucción y resolución.

Corresponderá al Presidente de la Mancomunidad la competencia para la resolución del expediente sancionador por las infracciones cometidas.

Eginiko arau-haustea arriskuan jarri badu saneamendua sarearen azpiegitura, ustiakuntza ari diren langileen osasuna edo arazte prozesua, isurketa guztiak bertan behera gera daitezke agindu ahal izango da. Eskaera horri uko egin bazaio, bertan behera utzi ahal izango da denbora batez Isurketarako Baimena eta, halatan, beharreko lanak bideratu beharko dira neurri horren alde, zigor-espedienteak erabaki arte.

Artikulu honetan aurrez adierazitakoaz gainera, Mankomunitateak beste erakunde eskudun batzuei eskatu ahal izango die zigor-espedientei ekin diezaieten, baldin eta erakunde horiek indarrean dagoen legeriaren arabera horretarako esku aski badute.

19. Artikulua. Kalte-ordainak.

Kasuan kasuko zigorrez gainera, arau-hausleak sortarazitako desegokierak konpondu eta eragindako kalteak ordainduko ditu. Erakunde zigortzaileak zehaztuko ditu kalte-ordainen munta, Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak hala eskatu ondoren.

ALDI-BATERAKO XEDAPENAK

Lehen.

Egun kolektorean isurtzen ari diren erabiltzaile guztiek eskuratu behar dute Isurketarako Baimena, ondoren zehazten diren epe eta baldintzen arabera, eta hauen ildotik moldatuko dituzte beren Estolda Sare Pribatuak eta merkataritza edo industria jarduerak Ordenantza honek eginiko zehaztapen guztietara.

Bigarren.

Egun 150 biztanle arruntek baino isurki-karga txikiagoa duten erabiltzaileek Isurketarako Baimena jasoko dute besterik gabe lehen erabilerarako udal lizentziarekin batera, gai toxiko, inhibitzaile edo erasokorrik isuri behar ez badute.

Hirugarrena.

Egun 150 biztanle arruntek baino isurki-karga handiagoa edo gai toxikoak, inhibitzaileak edo erasokorrak isuri behar duten erabiltzaileek Isurketarako Baimena eskatu beharko dute, erabiltzaile berri ororen antzera.

Eskaera Ordenantza hau indarrean hasi ondoko sei hilabeteko epearen barnean egingo dute eta beharreko dokumentuak eta proiektuak aurkeztuko dituzte eskaera-orriarekin batean.

Baimena eskuratu ahal izateko merkataritza edo industria prozesuak aldatu behar badira, Estolda Sare Pribatua moldatu behar bada edo hondakin-urak aurrez tratatu behar badira, honako epe hauek izango dituzte erabiltzaileak:

— Sei (6) hilabete Estolda Sare Pribatuan zailtasun tekniko apaleko aldatze edo moldatze lanak bideratu behar badira.

— Hamabi (12) hilabete, horrez gainera merkataritza edo industria prozesuak aldatu behar badira.

— Hogeita lau (24) hilabete, hondakin-urak aurrez tratatu behar badira.

Bideratu beharreko jardueren zailtasun-mailak eta kostuek hala eskatuz gero, Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak horiek guztiak aintzat hartu eta beharreko epea zehaztuko du horietako kasu bakoitzean, hogeita lau (24) hilabetetik gorakoa izan daitekeelako.

En caso de que la infracción cometida ponga en peligro la infraestructura de saneamiento, la salud del personal de explotación o el proceso de depuración, podrá ordenarse el cese inmediato de todos los vertidos. Si el requerimiento no fuese atendido, podrá así mismo acordarse la suspensión cautelar del Autorización de vertido y la realización de las obras precisas para hacerla efectiva, hasta que se resuelva el expediente sancionador.

Con independencia de lo anteriormente señalado en este artículo, la Mancomunidad podrá instar ante otros organismos competentes la incoación de expedientes sancionadores, en los casos en que tengan atribuida la competencia conforme a la legislación vigente.

Artículo 19. Reparación del daño e indemnización.

Sin perjuicio de la sanción que en cada caso proceda, el infractor deberá restituir los daños causados e indemnizar los perjuicios ocasionados. El importe de las indemnizaciones será fijado por el organismo sancionador, a propuesta de la Sociedad Gestora de la Mancomunidad.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.

Todos los usuarios que vierten actualmente al colector deberán de obtener la Autorización de Vertido en los plazos y términos que a continuación se indican, acomodando dentro de los mismos sus Redes de Alcantarillado Privadas y sus procesos comerciales o industriales en lo que fuera necesario para cumplir las prescripciones de esta Ordenanza.

Segunda.

Los usuarios actualmente existentes con carga inferior a 150 habitantes equivalentes y que no viertan sustancias tóxicas, inhibidoras o agresivas, tendrán otorgado tácitamente la Autorización de Vertido en la licencia municipal de primera utilización.

Tercera.

Los usuarios actualmente existentes con carga mayor a 150 habitantes equivalentes o que viertan sustancias tóxicas, inhibidoras o agresivas, habrán de solicitar su Autorización de vertido, en los mismos términos que los nuevos usuarios.

La solicitud habrá de realizarse dentro de los seis meses siguientes a la entrada en vigor de esta Ordenanza, e irá acompañada de los documentos y proyectos correspondientes.

Si la concesión de la Autorización requiere la modificación de los procesos comerciales o industriales, la adaptación de las Red de Alcantarillado Privadas o la realización de pretratamientos de aguas residuales, se otorgarán al usuario los siguientes plazos:

— Seis (6) meses si se trata de trabajos de modificación o adaptación de la Red Privada de Alcantarillado de escasa complicación técnica.

— Doce meses (12) si requiere además alguna modificación en los procesos comerciales o industriales.

— Veinticuatro (24) meses si requiere la realización de pretratamiento de aguas residuales.

Si la complejidad y el costo de las actuaciones precisas así lo aconsejaren, la Sociedad Gestora de la Mancomunidad, en atención a las mismas, fijará en cada caso el plazo correspondiente, que podrá ser superior a veinticuatro (24) meses.

Laugarrena.

Erabiltzaileek aurreko atalen arabera zehazturiko epeetanez badituzte beren instalazioak eta Estolda Sare Pribatuak egokitu ez badituzte edo hondakin-urak Ordenantza honek aurrez ikusiriko konposizio eta ezaugarrietara moldatu ez badira, debekatu egingo da hondakin-urak Estolda Sare Publikoaren bidez isurtzea eta Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak berehala egingo ditu hondakin-ur horien isurtzea galerezako duten obrak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrak gabe geratzen dira Mankomunitatearen Elkarte Kudeatzaileak eta Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatearen barneko udalek Ordenantza honek zehazturikoen aurka bideraturiko ekintza eta xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratu ondoko egunean hasiko da indarrean.

I. ERANSKINA

Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatearen Estolda Sarean egin beharreko isurketek ezartzen zaizkien muga-balioak.

1. Taula: Estolda Sare Publikoan egin beharreko isurketetan onartzen diren balio gorenak.

Parametroak	Unitateak	Onar. bal. max.
Qmax		Qmax + 3 Qmedio
pH	pH	5.5-9.5
Temperatura	° C	40
Color	Inapreciable en dilución	1 _ 100
Sólidos suspendidos	mg/l	800
Sólidos sedimentables	ml/l	20
DBO5	mg/l O2	1000
DQO	mg/l O2	2000
Aceites y grasas	mg/l	100
Detergentes	mg/l (lauril-sulfato)	10
Amonio	mg/l	40
Nitrogeno total (orgánico + amoniacal + NO ₂ + NO ₃)	mg N/l	100
Fosforo total mg	P/l	15
Cloruros	mg/l	1500
Fluoruros	mg/l	10
Sulfatos	mg/l	1000
Sulfuros	mg/l	2
Sulfitos	mg/l	5
Arsenico	mg/l	1
Bario	mg/l	20
Boro	mg/l	5
Cadmio	mg/l	0,2
Cromo (IV)	mg/l	1
Cromo	mg/l	4
Cobre	mg/l	2
Estaño	mg/l	5
Hierro	mg/l	25
Plomo	mg/l	1
Manganeso	mg/l	5
Mercurio	mg/l	0,05
Niquel	mg/l	4
Plata	mg/l	1
Selenio	mg/l	0,5

Cuarta.

Transcurridos los plazos señalados en los apartados anteriores sin que los usuarios hayan acomodado sus instalaciones y Redes Privadas de Alcantarillado, así como la composición y características de sus aguas residuales a lo previsto en esta Ordenanza, quedará prohibida la evacuación de aguas residuales por medio de la Red de Alcantarillado Pública, realizando la Sociedad Gestora de la Mancomunidad los trabajos necesarios para impedir materialmente el vertido de dichas aguas residuales.

DISPOSICION DERROGATORIA

Quedan derogados cuantos actos o disposiciones de la Sociedad Gestora de la Mancomunidad y de los ayuntamientos integrados en la Mancomunidad de Servicios de Txingudi que se opongan a lo establecido en esta Ordenanza.

DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación íntegra en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.


ANEXO I

Valores límites propuestos para los vertidos a la red de alcantarillado de la Mancomunidad de Servicios de Txingudi.

Tabla 1: Valores máximos admisibles en los vertidos a la Red de Alcantarillado Pública.

Parámetro	Unidades	Valor máx. admis.
Qmax		Qmax + 3 Qmedio
pH	pH	5.5-9.5
Temperatura	° C	40
Color	Inapreciable en dilución	1 _ 100
Sólidos suspendidos	mg/l	800
Sólidos sedimentables	ml/l	20
DBO5	mg/l O2	1000
DQO	mg/l O2	2000
Aceites y grasas	mg/l	100
Detergentes	mg/l (lauril-sulfato)	10
Amonio	mg/l	40
Nitrogeno total (orgánico + amoniacal + NO ₂ + NO ₃)	mg N/l	100
Fosforo total mg	P/l	15
Cloruros	mg/l	1500
Fluoruros	mg/l	10
Sulfatos	mg/l	1000
Sulfuros	mg/l	2
Sulfitos	mg/l	5
Arsenico	mg/l	1
Bario	mg/l	20
Boro	mg/l	5
Cadmio	mg/l	0,2
Cromo (IV)	mg/l	1
Cromo	mg/l	4
Cobre	mg/l	2
Estaño	mg/l	5
Hierro	mg/l	25
Plomo	mg/l	1
Manganeso	mg/l	5
Mercurio	mg/l	0,05
Niquel	mg/l	4
Plata	mg/l	1
Selenio	mg/l	0,5

ARQUETA TIPO 2.



Hau guztia argitara ematen da, Gipuzkoako Toki Ogasunak Arautzen dituen 1989ko Uztailak 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.4 artikulua agintzen duen bezala, guztiok jakinaren gainean egon gaitezen eta agindu horretan adierazten diren gainerako eraginak izan ditzan.

Aipaturiko Foru Arau horren 18.1 artikulua xedaturikoaren arabera, interesatuek Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Euskadiko Zuzentza Auzitegi Gorenaren aurrean, aipaturiko tipoak, kuotak, tarifak eta Ordenantzak finkatzen eta aldatzen dituzten erabakien aurka, hauek guztiak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoko lan-egunetik hasi eta bi hileko epean.

Halaz ere, eta aipaturiko arauak baimendu bezala, interesatu horiek nahi badute, eta Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoa aurkeztu aurretik, erreklamazio bat aurkez dezakete Gipuzkoako Administrazio eta Ekonomia Foru Auzitegiaren aurrean, hauek guztiak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoko lan-egunetik hasi eta hilabeteko epean.

Irun, 1997ko abenduak 17.—Francisco Buen Lacambra, Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatearen Lehendakariak.

(21)

(12253)

Todo ello se publica en cumplimiento de lo ordenado en el art. 16.4 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, para general conocimiento y demás efectos previstos en el expresado precepto.


De conformidad con lo dispuesto en el art. 18.1 de la citada Norma Foral, contra los expresados aprobatorios de fijación y modificación de tipos, cuotas, tarifas y Ordenanzas, los interesados podrán interponer recurso Contencioso-Administrativo ante la correspondiente Sala del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente hábil al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Ello no obstante y como autoriza el precepto citado, los referidos interesados podrán interponer, con carácter potestativo y previamente a la vía Contencioso-Administrativa, reclamación ante el Tribunal Económico Administrativo Foral de Gipuzkoa en el plazo de un mes contado a partir del siguiente día hábil al de la publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de las expresadas publicaciones.

Irun, a 17 de diciembre de 1997.—El Presidente de la Mancomunidad de Servicios de Txingudi, Francisco Buen Lacambra.

(21)

(12253)



TRE

TXINGUDIKO ZERBITZU MANKOMUNITATEA

Iragarkia

Mancomunidad de Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatearen Batzarrak, 1998ko ekainaren 15ean eginiko bilkuran, honako erabaki hauek hartu zituen beharrezko gehiengo abtsolutuz:

«1. Mancomunidad de Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatearen Saneamendu Sarerako Isurkiei buruzko Ordenantzan aldaketak egitea, dokumentuan zehaztutakoaren arabera (Eranskina).

2. Espedientea jendaurreko informazio-tranitera eramatea hilabete bateko epean, dagokion iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argita emanez».

ERANSKINA

«Mancomunidad de Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatearen Saneamendu Sarerako Isurkiei Buruzko Ordenantzaren» testuan dauden **akatsen zuzenketa**.

Non: I. Eranskina, «1_100» dioen lekuan «1/100»x idatzi behar da.

Non: I. Eranskina, «Fósforo total mg ... P/l» dioen lekuan «Fósforo total ... mg P/l» idatzi behar da.

Non: I. Eranskina, «Cr(IV)» dioen lekuan «Cr(VI)» idatzi behar da.

Non: I. Eranskina, «AOX ... mg/l ...30» dioen lekuan «AOX ... mg/l ...0.3» idatzi behar da.

Irun, 1998ko **ekainak 22**.—Francisco Buen Lacambra, Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateko Presidenteak.

(15)

(6228)

MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS DE TXINGUDI

Anuncio

La Asamblea de la Mancomunidad de Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea, en sesión celebrada el día 15 de Junio de 1.998, acordó por la mayoría absoluta legal requerida:

«1. Modificar la Ordenanza de Vertidos a la Red de Saneamiento de la Mancomunidad de Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea, en el sentido que figura en el documento (Anexo).

2. Someter el expediente a información pública durante el plazo de un mes, publicando un anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa. En caso de que en dicho plazo no se presenten alegaciones, la Ordenanza se considerará aprobada definitivamente».

ANEXO

Corrección de erratas en el texto de la «Ordenanza de Vertidos a la Red de Saneamiento de la Mancomunidad de Servicios de Txingudi - Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea».

Lugar: Anexo I, donde dice «1_100» debe decir «1/100».

Lugar: Anexo I, donde dice «Fósforo total mg P/l» debe decir «Fósforo total mg P/l».

Lugar: Anexo I, donde dice «Cr(IV)» debe decir «Cr(VI)».

Lugar: Anexo I, donde dice «AOX mg/l 30» debe decir «AOX mg/l 0.3».

Irun, a 22 de junio de 1998.—El Presidente de la Mancomunidad de Servicios de Txingudi, Francisco Buen Lacambra.

(15)

(6228)

